



ESPERIMENTUA: ZER MOTATAKO PAPERAREKIN EGITEN DA AZKARREN OSTADAR BAT?

Sukaldeko paperaren ertz bat ur tindatua duen edalontzi batean sartzen baduzu (eta beste aldea kanpoan zintzilik utzi), ura sukaldeko paperean gora joango da, edalontziaren ertzeraino. Haren tantak ontzi huts batean jaso ditzakezu. Egin proba edalontzi gehiago erabiliz (ur gorria, horia eta urdina jarrita), eta jaso tantak haien artean ontzi hutsak ipiniz. Gora egiten duen urak koloreak nahasiko ditu ontzi hutsetan, eta, ordu batzuk igaro ondoren, ostadar eder bat sortuko da. Zer gertatzen da beste paper-mota bat erabiliz gero? Ura abiadura berean mugituko al da, eta denbora berean sortuko al da ostadarra?

SAIATU ASMATZEN: Zer motatako paperak sortuko du azkarren ostadarra?

ESPERIMENTUA EGITEAN KONTUAN IZAN BEHARREKOAK

Gogoratu aldatu behar duzun gauza bakarra ontzien artean jarritako paper-mota dela. Gainerako gauza guztiak berdin mantendu behar dira!

- Ur-kantitate bera, tamaina bereko edalontziak eta paper-mota bakoitzeko kantitate bera erabili behar duzu.
- Hasteko, sei edalontzi jarri behar zenituzke: ontzi bat ur gorriarekin, beste bat horiarekin eta beste bat urdinarekin, eta ontzi hutsak haien artean. Jarri paperaren alde bat edalontzi huts batean, eta tolestu beste aldea beste

edalontziko ur tindatua ukitzen egon dadin. Janari-koloratzaileen tanta batzuk erabil ditzakezu ur gorria, horia eta urdina lortzeko (erabili kantitate bera guztietan!).

- Zer paper-mota erabiliko dituzu (adibidez, sukaldeko papera, komuneko papera, iragazki-papera, paperezko mukizapiak, zeta-papera eta ordenagailurako papera)?

DATUAK

- Nola neurtuko duzu ontzi bakoitzeko ur-kantitatea?
- Nola neurtuko duzu zenbat denbora behar duen (gogoratu balitekeela orduak behar izatea)?

ZER IKASI DUZU ESPERIMENTU HONETATIK? ZER GERTATU DA? ZERGATIK USTE DUZU GERTATU DELA?

Bizitza errealean...

LANDAREEN SUSTRAIAK EGOKITUTA DAUDE, URA AZKAR MUGITZEN ABILAK IZATEKO. PAPER-MOTA BATZUK URA ONDO XURGATZEKO EGINAK DIRA, ETA, BESTE BATZUK, BERRIZ, URA UXATZEKO. LANDAREEN SUSTRAIEN ANTZEKO DISEINUA DUTEN PAPEREK AZKAR MUGITUKO DUTE URA.

ELENAK (4 URTE) ETA EKHIK (4 URTE) KOMUNEKO PAPERAK, PAPEREZKO MUKIZAPIAK, PAPER EZKOZTATUA, ORDENAGAILURAKO PAPERAK ETA SUKALDEKO PAPERAK ERABILI ZITUZTEN. IKUSI ZUTEN SUKALDEKO PAPERAK EGITEN ZUELA AZKARREN OSTADARRA. PAPEREZKO MUKIZAPIAN, UR PIXKA BAT IGO ZEN, BAINA EZ ZUEN OSATU OSTADARRA. KOMUNEKO PAPERAK DESEGIN EGIN ZEN, ETA PAPER EZKOZTATUAK ETA ORDENAGAILURAKO PAPERAK EZ ZUTEN BATERE URIK MUGITU!

